

## **GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEAREN ESTATUTUAK**

### **I. TITULUA: Iraskundearen izena eta helbidea:**

1. artikulua: - GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEA izenarekin, Kultur Fundazio Pribatu bat eratu da, irabazi asmorik gabekoa, eta izaera iraunkor eta mugagabea duena; Espainiako Konstituzioaren 34. artikuluekin eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenekin bat etorritik, betiere.

2. artikulua: - Iraskundearen helbidea honakoa izango da: Foru Enparantza, z/g, Gernika-Lumo (Bizkaia). Hala ere, ordezkariak ezarri ahal izango ditu, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai hortik kanpoko edozein tokitan, Iraskundearen gobernu organoak eta zuzendaritzak hartutako erabakiei esker.

3. artikulua: - Patronatuak Iraskundearen helbidea aldatzeko erabakia har dezake, behin Babesletzari horren berri eman eta gero.

### **II. TITULUA.- Iraskundearen xedea eta onuradunak:**

4. artikulua: - GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEAREN oinarrizko xedea, mundu mailan nahiz Euskal Herri mailan bake askatzaile eta justua lortzen laguntzea da, hausnarketa zientifikoko bidez sortu eta lagundutako ekarpenen bidez, eta hiriarekin edo/eta Gernikaren sinboloarekin lotuta, betiere; modu horretara, Eusko Jaurlaritzak 1987ko apirilaren 10ean onartutako Legezkoa ez den Proposamena bete, eta Gernikan Bakearen aldeko Ikastegi bat ezarriko litzateke.

5. artikulua: - aipatu oinarrizko xedea lortzeko, honako helburuak izango ditu jarraibide gisa:

- a) Bake eta etsaigoan oinarritutako gizarte harremanen hausnarketa eta ikerketa burutu, sustatu eta koordinatzea, bai eta ingurunearekin duen dependentzia aztertzea ere, gatazkaren nahiz gizarte kontsentsuaren identitatean oinarrituz, euskal gizarteari dagokionez, batez ere.
- b) Instituzio publiko nahiz pribatuei, komunikabideei, gobernu kanpoko erakundeei, gizarte mugimenduei eta, orokorrean, herritarrei, informazioa eta aholkularitza eskaini eta, hala badagokio, beharrezkoa den laguntza ematea, bakea lortzeko beharrezkoak diren ahalegin guztiak abiarazi eta bultzatu ahal izateko.
- c) Euskal nortasunarekin zerikusia duten bakearen aldeko alternatibak garatu eta proposatzea, beste aztertegi, ikastegi, nahiz horretarako gaitasun nahiko duten gainontzeko pertsonekin elkarlanean.
- d) Bakearen aldeko Hezkuntzan berezkoak diren metodo, programa eta aplikazio-moduak sortu eta proposatzea.
- e) Testu eta buletinak argitaratu, eta bestelako informazio materiala garatzea, hala idatzizkoa nola ikus-entzunezkoa, Iraskundearen oinarrizko xedearekin bat etorritik, betiere.
- f) 4. artikuluan adierazitako xedea lortzeko unean lagungarriak diren egitasmoak antolatzea: konferentziak, mintegiak, sinposiumak, ikastaroak, trebakuntza ikastaroak, graduondoko programak eta bilerak.
- g) "Gernika Gogoratuz" Elkarteak Gernikan hasitako Dokumentazio Zerbitzua garatzea.
- h) Estatu Espainiarrean nahiz mundu zabalean gainerako ikastegi edota aztertegiek abiarazten dituzten ekimenetan parte hartzea.
- i) Bakearen aldeko sinboloa eta askatasun nahiz euskal nortasunaren adierazgarri den heinean, Gernika mundu mailako bake eta askatasunaren faktore bilakatu dadin laguntzea.

- j) Gernika-Lumoko Udalarekin eta bestelako instituzio, erakunde eta elkarteekin elkarlanean, bakearen aldeko jarduerak antolatu eta garatzea, batez ere Gernikan.

6. artikulua: - GERNIKA GOGORATUZ IRASKUNDEAREN baitan, Bakearen aldeko Ikastegia egongo da. Ikastegi hori, arestian aipatutako Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 10eko Legezkoa ez den proposamena betetzeko sortu zen; horren arabera, bere gain hartzen ditu dagozkion erabaki, konpromiso eta egiteko guztiak orokorrean, eta honako hauek, modu zehatzago batean:

- a) Lankidetzaren hitzarmenak eta Unibertsitate desberdinekin elkarlanean burutu beharreko proiektuak ezartzea, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin, batez ere. Etorriz, hitzarmen horiek garatzearen ondorioz, Institutu edo/eta Partzuergo bat sortu ahal izango da.
- b) Zentroa beharrezko baliabide ekonomiko, material eta langilez hornitzea, bere egiteko modu egokian burutu dezan.
- c) Zentroak dituen zerbitzuak gizarte osoaren esku jartzea (liburutegia, dokumentazio zerbitzua, etab.)

7. artikulua: - Jarduerak burutu eta, bereziki, bertako Bakearen aldeko Ikastegiaren Kudeaketa modu egokian burutzeko, Iraskundeak Hitzarmen edota kontratuak sinatu ahal izango ditu, gainerako erakunde publiko nahiz pribatuekin.

8. artikulua: - Baliabideetan soberakinak egonez gero, Iraskundeak laguntza ekonomikoak eman ahal izango dizkie bestelako Erakunde, Elkarte edota Gizarte Taldeei. Helburu hori duten ekarpen ekonomikoak aldi bakarrekoak izango dira, eta ez da egongo etorkizunean laguntza gehiago emateko inolako konpromisorik. Aipatu laguntza horiek, betiere, Iraskundearen oinarritzko xedearekin bat datozen helburuei zuzendu beharko zaizkie. Era berean, aipatu laguntzok gizarte nahiz kultur jardueretan zerbitzuak emateko zuzenduta ere egon daitezke.

9. artikulua: - Iraskundeak norbanakoen ideologiak errespetatu arren, ez du inolako jardura politikorik baimenduko erakundearen lokaletan; era berean, ezin izango da inolako talde, erakunde edota alderdi politikora atxiki.

10. artikulua: - Edozein pertsona zein Erakunde izan ahalko da Iraskundearen onuradun, inolako diskriminaziorik gabe; horretarako, hala ere, Estatutu honetako 4. artikulua esandakoa errespetatu beharko da.

11. artikulua: - Patronatuak irizpide finkorik gabe banatuko ditu Iraskundearen mozkinak, horretarako merezimendu nahikoa duten pertsona edota erakundeen artean. Ez norbanakoek ez taldeek ezin izango dute Iraskundearen aurrean mozkin horien laguntza eskubiderik alegatu; era berean, ezin izango dute Patronatua derrigortu laguntza horiek pertsona jakin batzuei atxikitzeko unean.

### III. TITULUA.- Iraskundearen Antolamendua.

#### 1. Atala. Patronatua, Eraketa eta eskumenak.

12. artikulua: - Patronatua da Iraskundea Gobernatu, administratu eta ordezkatzeko ardura duen organo nagusia; bere kargupean egongo dira Iraskundea zuzendu eta kontrolatzeko ahalmenak, honako estatutu hauetan jasotzen diren eskuduntzekin bat etorritik, betiere.

Ahalmen horiek egikaritzeko unean, Patronatuak orotariko egitate, egintza eta negozio juridiko gauzatu ahal izango du, inolako formalitaterik betetzeko beharrianik gabe, eta Iraskundez gaindiko agintari edota pertsonen inolako baimenen beharrianik gabe. Aginduzko arauak, hala ere, kontrakoa xedatu ahal izango dute.

13. artikulua: - Patronatua, Estatu hauetan ezarritakoaren arabera izendatutako pertsona fisiko eta juridikoek osatuko dute; horretarako, betiere, nahitaezkoa izango da jarduteko gaitasuna izatea, eta eskumenak egikaritzeko unean estatutuetan zehaztutakoa errespetatzea.

Betetzen duten lanpostuaren arabera izendatutako Nagusiek, beraien ordezkari bat hautatu ahal izango dute.

14. artikulua: - Parte hartzeko beharrezkoak diren formazko betekizunei kalterik egin gabe, honakoek osatuko dute Iraskundearen Patronatua:

- a) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua edo, hori ezean, kultura arloan eskumenak dituen Saileko Titularra.
- b) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak izendatutako ordezkari bat edo, hori ezean, kultura arloan eskumenak dituen Sailak izendatutakoa.
- c) Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Errektoretza Taldeko kidea.
- d) Deustuko Unibertsitateko Errektorea edota unibertsitate horretako irakasle bat, haren izenean.
- e) Gernika Gogoratuz Elkarteko hiru ordezkari.
- f) Gernika-Lumoko Alkatea.
- g) Gernika-Lumoko Udalak izendaturiko ordezkari bat.
- h) Iraskundeko Patronatuak gainontzeko kideak izendatu ahal izango ditu, aho batez; Patronatuak, hala ere, 12 kide izan ahalko ditu, gehienez.

15. artikulua: - Patronatuaren bileretan parte hartu ahal izango dute, boto eskubiderik gabe:

1.- Edozein instituzio, baldin eta Iraskundearen urteko aurrekontura %15eko gutxieneko ekarpena egiten badu. Instituzio horrek, bileretan parte hartzeko ordezkari bat izendatuko du.

2.- Nazio Batuen Idazkariaren ordezkari bat gonbidatu ahal izango da.

3.- Patronatuaren ustez, bilerako gai zerrendaren inguruan aholkuak emateko egokiak diren pertsonak.

16. artikulua: - Gernika-Lumoko Alkatea izango da Patronatuko Lehendakaria.

17. artikulua: - Lehendakaria izango da Iraskundeko Patronatuaren ordezkari nagusia, eta postu horri dagozkion eskumenei jarraiki, Patronatuak hartutako Erabaki guztiak formalizatzeke beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko baimena izango du.

Lehendakariari dagokio Patronatuaren deialdia egitea, bai bere ekimenez, bai gainontzeko batek hala eskatu duelako. Berari dagokio, baita ere, kideei jakinarazpenak egitea, eztabaidak zuzentzea, eta hartutako erabakiak betearaztea.

18. artikulua: - Patronatuak Lehendakariorde bat izendatuko du bere kideen artean; horretarako, kideen gehiengoaren aldeko botoak beharko dira.

Lehendakariorde horrek Lehendakaria ordezkatzeko du absentzia edota gaixotasun kasuetan. Gertakari horiek egiaztatzeke, nahikoa izango da horren inguruko adierazpen soil bat egitea. Bai Lehendakaria bai Lehendakariordea falta direnean, adinez nagusia den kideak hartuko du haien lekua.

19. artikulua: - Patronatuak Idazkari bat izendatuko du Gernika Gogoratuz Elkarteko kideen artean. Bera arduratuko da, beste zeregin batzuen artean, Iraskundeko lan administratiboak zuzentzeaz, dokumentazio guztia zaintzeaz eta bilera bakoitzari dagokion akta egiteaz. Azken horiek, akta liburuan jasoko dira, behin onartu eta gero, eta Lehendakariak oniritzia eman ondoren. Idazkariak, Patronatuko bileretan parte hartu arren, ez du boto eskubiderik izango.

20. artikulua: - Patronatuak, egoki iritziz gero, Diruzain bat izendatuko du kide guztien artean; bera arduratuko da diru bilketaz eta Iraskundeari dagozkion fondoak zaintzeaz. Horrez gain, bera arduratuko da, baita ere, sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzeaz.

21. artikulua: - Patronatuko kideak izaera mugagabearekin izendatuko dira, Legeak aurreikusitako banantze eskubideren bat gertatzen denean salbu.

Patronatuko kideren bat pertsona juridikoa izanez gero, pertsona fisikoak ordezkatzeko ahalmena izango du, edozein momentutan.

Beraien kargua dela eta izendatu diren pertsonak, gobernu organoko kide izateari utzi beharko diote, aipatu kargu hori uzten duten unean bertan. Hortik aurrera, kargu horretako titular berriak hartuko du haren lekua.

22. artikulua: - Patronatuko plazaren bat hutsik egonez gero, honela beteko da:

a) 14. artikuluan zerrendatutako pertsona juridikoren batek izendatutako kideren bat izanez gero, Patronatuko Idazkariak idazki bat igorriko dio dagozkion erakundeari, ordezkari berri bat izendatu dezan.

Erakunde horrek izendapena egiteari uko eginez gero, Estatutuak berriztatzeko prozedura bati ekingo zaio, Patronatuko kideen osaketa aldatu ahal izateko.

b) 14. artikuluan zerrendatzen diren gainontzeko kasuetan, Patronatuak berak erabakiko du nola bete hutsik dauden plazak.

## 2. Atala. PATRONATUAREN erregimen eta funtzionamendua:

23. artikulua: - Patronatuaren deialdiak idatziz egingo dira. Bertan, Lehendakariak onartutako Gai Zerrenda azalduko da, Patronatuko gainontzeko kideek egindako eskaerak kontuan hartuz, betiere. Deialdiaren jakinarazpena gutxienez 10 egun lehenago egin beharko zaie kideei, presazko kasuetan salbu. Azken kasu horretan, epea laburragoa izan badaiteke ere, beti errespetatu beharko dira, bai komunikatzeko betebeharra, bai deialdia jaso izanaren ziurtasuna.

Patronatuak urtean bilera bat egingo du gutxienez.

24. artikulua: - Patronatua lehenengo deialdian eratuta geratu dadin, kide guztien erdia gehi bat bertaratu beharko dira, hala pertsonalki nola ordezkari bidez

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma lortuko ez balitz, Patronatuak ordu bete beranduago egingo du bigarren deialdia. Kasu horretan, ez dio axola bertaraturako kide kopuruak. Nahikoa izango da gutxienez hiru kide eta Lehendakari edo Lehendakariorde titularra egotearekin.

Erabaki guztiak erabateko gehiengo bidez hartuko dira. Berdinketa kasuetan, Lehendakariaren kalitate botoa erabakigarria izango da.

Patronatuak egiten duen bilera bakoitzeko, Idazkariak Akta bat jasoko du. Bertan, eguna eta tokiaz gain, bertaratu diren kideen zerrenda, eztabaidatu diren gaiak eta hartutako erabakien edukiak ere zehaztuko dira.

Idazkariak eta Lehendakariak Akta guztiak sinatuko dituzte, eta horien onarpena bilkuran bertan edota hurrengoan egin ahal izango da. Behin aktak onartu ostean, Akta Liburuan jasoko dira.

25. artikulua: - Patronatuak, Iraskundearen izenean jardungo duen ordezkari edo ahaldun bat edota gehiago izendatu ahal izango ditu. Ezin izango dira eskuordetu ez kontuen onarpena, ez Iraskundearen eguneroko kudeaketatik aldentzen diren gainerako egintzak. Eskualdatutako ahalmen guztiak Fundazio Kultural Pribatuen Erregistroan inskribatu beharko dira.

26. artikulua:- Patronatuko kargu guztiak dohainik egikarrituko dira. Hala ere, Patronatura joateko beharrezkoak diren gastu guztiak itzuli egingo dira, baldin eta organoak berak hala erabaki badu. Gastu horiek behar bezala justifikatuta egon beharko dira, betiere,

gastu orokor edota administrazio gastuen inguruan indarreko legeriak zehazten duen gehieneko muga errespetatuz.

### 3. Atala. Aholkularitza Batzordea

27. artikulua:- Iraskundea, ospe handiko kideez osaturiko Aholkularitza Batzordea izan daiteke. Kide horiek Patronatuak hautatuko ditu, eta beraien zeregin nagusia, kontsultei erantzun eta aholkuak ematea izango da. Patronatuak berak zehaztuko du Batzordearen funtzionamendua.

#### IV. TITULUA. Ondarea eta Erregimen Ekonomikoa.

28. artikulua:- Iraskundearen kapitala honakoek osatuko dute:

- a) “GERNIKA GOGORATUZ ELKARTEAK” jaso beharreko ondasunak, Iraskundearen hasierako zuzkidura osatzen dutenak.
- b) Kapitala gehitzeko Iraskundeak jasotzen dituen zenbatekoak.
- c) Zuzenbidearen arabera edozein bideren bidez Iraskundeak eskuratzen dituen ondasunak, legatu, dohaintza, ekarpen eta diru-laguntza bidezkoak, batez ere. Nahitaezkoa izango da, kasu horretan, Patronatuko Batzordeak ekarpen horiek onartzea. Horien guztien helburua, hasierako kapitala gehitzea izango da.
- d) Iraskundeak, sarrera bidez lortutako soberakinak hasierako kapital hori gehitzeko erabili ahal izango ditu.

Aurreko ataletako edozeinetatik lortutako ondasunen etekinak, kapital irabazi gisa ulertu, eta Patronatuaren helburuak betetzeko erabiliko dira.

29. artikulua:- Ondasun eta errentak, Iraskundera zuzen-zuzenean lotuta daudela ulertuko da, bitarteko pertsona edota erakunderik gabe, eta iraskundearen helburuetarako erabiliko dira.

Hasierako ondarea Iraskundearen helburuetara bideratzeko unean, modu erkide eta banatu gabean egingo da; hau da, ondare horietako bakoitzari ez zaio Iraskundearen kapital eta errenten gaineko zati edota kuotarik ezarriko, ez berdinek ez desberdinek. Ondorioz, Iraskundea ez da bere kapital nahiz errentak helburu desberdinen arabera zatitu edota banatzera behartuta egongo; era berean, ez du zertan ondare hori helburu jakin bati edota batzuei atxiki beharko.

30. artikulua:- Iraskundeko Patronatuak, koiuntura ekonomikoak aholkatzen duenari jarraiki, Iraskundearen kapitala aldatu, eraldatu edota bihurtu egin ahal izango du, uneoro, eta nahi beste aldiz. Horren guztiaren helburu nagusia izango da, balio nominala mantendu arren, balio efektiboa edota erosteko ahalmena txikitzea.

31. artikulua:- Iraskundearen Ondarea osatzen duten ondasunak zaindu eta babestearren, honako arauak hartuko dira kontuan:

- a) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira, Iraskundearen izenean. Inskribatzeko moduko gainontzeko ondasunak, dagokien Erregistroan inskribatu beharko dira.
- b) Fondo publikoak eta balore higigarri, industrial edota merkataritzakoak, bankuetan gordailatu beharko dira, Iraskundearen izenean.
- c) Baloreak nahiz eskudirutan dagoen zenbatekoa, jabetza tituluak, gordailuen egiaztagiriak eta jabaria, edukitza, erabilera, gozamina edota Iraskundearen titulartasunpeko gainerako eskubideak jasotzen dituzten gainontzeko agiriak, Patronatuak aurretiaz zehaztutako erakundearen gordailatuko dira, Iraskundearen izenean.
- d) Gainerako ondasun higikorak, Patronatuak zehaztutako moduan zainduko dira. Iraskundearen ondasun guztiak Ondarearen Erregistro Liburu batean inbentariatuko dira. Liburu hori, Patronatuko Idazkariaren ardurapean egongo da eta, bertan,

ondasun bakoitza identifikatu eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak zehaztuko dira, Patronatuaren ikuskaritzapean, betiere.

#### V. TITULUA. Kontabilitatea

32. artikulua:- Ekitaldi ekonomikoa urte naturalaren arabera izango da.

Salbuespenez, lehenengo ekitaldia Iraskundearen eraketa egunean hasiko da, Kultur Fundazio Pribatuen Erregistroan inskribatzearekin batera. Amaiera, berriz, urte bereko abenduaren 31n izango da.

33. artikulua:- Urtero, eta hurrengo ekitaldiari begira, sarrera eta gastuei buruzko aurrekontu bat egingo da. Aurrekontu horren emaitza Patronatuari jakinarazi beharko zaio, dagokion onarpena eman diezaion.

- Sarrerei dagokien aurrekontuak, Iraskundearen ondasunek ustez izan beharko lituzkeen etekinak aurreikusi beharko ditu, bai eta dagoeneko kanpotik etortitako diru-laguntzak ere.
- Gastuei dagokien aurrekontuak, berriz, ekitaldian zehar izango diren ustezko gastuak jasoko ditu. Bertan barne hartu beharko dira, gutxienez, Iraskundearen ondareari dagozkion produkzio, artatze eta aseguruaren adierazpenak; langile, material eta administrazio arlokoak; Ondarearen balioek izandako diru-galera edota galtzearen amortizazioari dagozkionak eta, orokorrean, Iraskundearen helburuei aplikatu beharreko zenbatekoak.

Ekitaldiak dirauen artean, Patronatuaren ustez beharrezkoak edota gomendagarriak diren aldaketak sartu ahalko dira aurrekontuan, bete beharreko beharizan eta arreten arabera egokitu eta, betiere, sarrera kopurua gainditzen ez den bitartean.

34. artikulua:- Ekitaldi bakoitzaren amaieran, aurrekontua aplikatzearen ondorioz islatu diren egoerei buruzko txosten bat egingo da, eta Patronatuari dagokio kontu horiek onartzea.

35. artikulua:- Iraskundearen aurrekontuak, bai ohikoak bai ezohikoak, parekatuak izango dira.

36. artikulua:- Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko lehen lau hilabeteetan, Iraskundeak ohiko aurrekontuaren likidazioa eta aurreko urteari dagokion balantzea prestatuko ditu. Horrez gain, ekitaldian buruturiko jarduera guztiak biltzen dituen Txosten bat ere egingo du, kudeaketa ekonomikoarekin batera.

Txosten horretan, hasierako ondarearen inbertsioak eta Patronatuaren osaketak izandako aldaketak ere zehaztuko dira; era berean, helburu nahiz jarduera guztiei behar besteko publikitatea emateko betebeharra bete den ala ez aztertuko da.

37. artikulua:- Iraskundeak, aurreko urteko aurrekontuaren likidazioari, balantzeari eta txostenari dagozkien bina kopia igorriko dizkio Babesletzari, uztailearen 1a baino lehen; horiei guztiei, aipatu dokumentuak kontabilitate liburuaren isla leiala direla ziurtatzen duen agiri bat ere erantsiko zaie.

#### VI. TITULUA. Iraskundearen aldaketa, bat egitea eta desegitea.

38. artikulua:- Iraskundeak, bere Estatutuen aldaketa sustatu edota beste Fundazioren batekin bat egin ahal izango du. Horren aldeko erabakia Patronatuak hartu ahal izango du, berau osatzen duten kideen 4/5ak aldeko botoa ematen badu, betiere.

39. artikulua:- Iraskundea desegingo da, Kode Zibilaren 39. artikulua eta kasu zehatz horri aplikatzeko moduko manuek zehaztutakoaren arabera.

Edozein kasutan, desegin egingo da, baita ere, Iraskundeak hasieran finkatutako helburuak bete ezin dituenean.

Era berean, Iraskundea desegiteko aukera egongo da, baldin eta Patronatuko kideen 4/5ak hala erabakitzen badu, horretarako espresuki deitutako bilkura batean.

40. artikulua:- Behin desegitea adostu ostean, Patronatuak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du. Batzorde horrek, ondasunak besterendu eta burutzeke daude betebeharrak guztiak asetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du. Horrez gain, egon litekeen soberakina finkatu, eta horri irtenbide bat emateaz ere arduratuko da, desegin berri den Iraskundearen helburuarekin eta Legeekin bat etorritik, betiere.

Gernika-Lumo, 1994ko abenduaren 15a.